

ZUMAIA / Ipuinak lantzeko tailerra hasiko da datorren larunbatean Haurren liburutegian

Azaroaren 5ean hasiko lau larunbatetan emango da ikastaroa Foronda kultur etxean

J.L. ROMATET/ZUMAIA. DV. Haur liburutegian izaten diren ipuinkontaketa saiotara haur ugari hurbiltzen direla eta, honen inguruan ekimen erakargarria antolatu da Foronda kultur etxean, ipuinak lantzeko tailerra, hain zuzen ere. Tailerra datozen lau larunbatetan emango da goizeko 10etatik 12:30era. Lehen eguna azaroaren 5a izango da. Izena kultur etxean eman beharko da eta matrikula 15 eurokoa izango da. Antolatzaileek azaltzen duten bezala, askotan haurrek ipuin bat kontatzeko eskatu dutenean liburu bat hartu eta irakurri egin zaie. Baina ipuin bat kontatzea hori baino askoz gehiago da liburutegikoen ustetan: istorioak elkarbanatzeko momentu hurbila, hitzen goxotasunaz gozatzekoa, gure barne-begiez bidaiatzeko beta... Baina, hala ere, askotan ez da jakiten nola kontatu behar diren, zeintzuk diren egokienak adinen arabera, edo are gutxiago, nola asmatu norberaren ipuinak.

Hau dela eta, Zumaiako liburutegiak ipuinak lantzeko tailer berezi hau antolatu du "Kandelen Argipean" ipuin-kontalari taldeko Begoña Gómez Abrisketa kontalariaren laguntzaz.

Bertan aztertuko dira zeintzuk diren ahozko narrazioaren oinarritzko elementuak eta hauek dinamika praktikoez landuko dira, beti ere ondo pasatzen ikasteko helburuarekin, azken batean hori baita ipuinen xede nagusia.